

AUZOLANA ETA HERRIGINTZA:



Bizimodu Komunitarioak Berpiztuz

Udako Euskal Unibertsitatea
Eibar. 2011ko Uztailak 12 eta 13

AUZOLANA ETA HERRIGINTZA: BIZIMODU KOMUNITARIOAK BERPIZTUZ

Itzulera dokumentu honetan, 2011ko uztailean "AUZOLANA ETA HERRIGINTZA: BIZIMODU KOMUNITARIOAK BERPIZTUZ" UEUko ikastaroaren baitan, talde gogoetak sortutako edukiak laburbiltzen ditugu.

Ondoko hauek, eta argazkian agertzen ez diren beste batzuk, izan ginen ikastaroaren partaide bereziak. **Mila esker denoi!!!!**



Ikastaroaren abiapuntu bezala, bere egitura eta planteamendu pedagogiko parte hartzailea aurkeztu eta gero, jolasa edo dinamika ludikoa egin genuen elkar ezagutzen hasteko eta talde bezala eratzen joateko. Izan ere, hizlariak eta gonbidatuak izan bagenituen ere, denon arteko gogoeta kolektiboa eta talde-lana ikastaroaren ardatz eta jakintza-iturri nagusiak izan ziren. Hau da, denon ideia eta ekarpenekin osatu genituen bi egun horietako edukiak. Horrexegatik, gonbidatuen ekarpenarekin osatzen eta aberasten joan baginen ere, erabateko protagonismoa

eta zentralidadea eman genion talde-dinamika ezberdinen bitartez denon artean eraiki genuen gogoeta kolektiboari. Horixe izan zen ikastaro honek gidatu zuen ezagutza-filosofia eta apustu didaktiko emantzipatzailea: ezagutza modu kolektiboan sortzea eta, guztion bizipen eta ideien kontrasteari balio emanez, gure gaitasunen auto-konfiantza sendotu formazio eta ezagutzaren alorrean ere subordinazio edo dependentzia harremanak/egoerak gainditzeko.

Hasierako aurkezpenak jolasaren bitartez egin eta gero, beraz, talde txikietan banatu ginen eta gogoeta zein sorkuntza kolektiboari ekin genion; Auzolana eta Herrigintzaren elementu definitzaileak denon artean identifikatzea izan zen lehendabiziko ariketa. Ondoko hau izan zen denok erantzun genuen abiapuntuko galdera: **zeintzuk dira zure ustez auzolana eta herrigintzaren EZAUGARRIAK?** Hona hemen batu genituen elementuak:



Ezaugarritze lan hau sakontzeko eta aberasteko bi gonbidatu izan genituen. Batetik, **Jasone Mitxelorena** auzolanaren begirada historikoaz aritu zen eta,

bestetik, **Fredi Paiak** begirada etnografikoan sakondu zuen. Behin euren ekarpenak entzunda, gure hasierako hausnarketari elementu gehiago gehitu genizkion:

- **Auzolana = bizirauteko behar indibiduala.**
- **Elkarren beharraren sena edo kontzientzia.**
- **Auzolana betebeharraren moduan.**
- **Bete beharreko konpromiso kolektiboa.**
- **Derrigortasun /zigor sistema baten existentzia.**
- **Konpromiso kolektiboaren obligazioa.**
- **Moralaren eragina auzolanean: laguntzen zaituenarekiko zor morala.**
- **Elkarrekiko laguntza.**
- **Erabakiak hartzeko gune parte hartzailea: batzarra.**
- **Konpartitzea.**
- **Imaginario kolektiboa.**
- **Kontzientzia: talde baten zati garela kontuan eduki.**
- **Ni denaren parte.**
- **GU-tik NI-ra eta NI-tik GU-ra.**
- **Gutasunetik - Nitasunerako "bidaia".**
- **Pertsona eta bere testuingurua.**
- **Besteen beharra.**
- **Geure-geurea, arnasa.**
- **Herentzia historikoa.**
- **Kudeaketa komuna.**
- **Haurtzarotik eman behar den konpromiso kolektiborako ikasketa prozesua.**
- **Lehen bizirik irauteko egiten zutena orain bizirik sentitzeko egin beharko genuke.**
- **Ikuspegi organikoa.**
- **Roboten gero eta antza handiagoa dugu.**
- **Diruarekin ordaindu/erosi ezin dena partekatu beharko dugu "auto-askitasunaren" garbi honetan.**
- **Kritikotasun historikoa: Kontuz adibide historikoak ikuspegi akritikotik lantzearekin. Adibidez, ze irakurketa egin daiteke sexismo edo patriarkatuaren ikuspegitik auzolanari buruz? Eta "hiritartasunaren" ikuspegitik? Nor da "auzoa", nor burujabe, nor kolektibitatearen parte?**
- **Izaera espiritual, espiritu kolektiboa.**
- **Kolektiboaren kosmobisioak oinarri espiritual behar du.**
- **Auzolana, materialaz gain, espiritual.**

- Jabetza kolektibo material baten beharra.
- Ondasun Kolektiboa, herri "jabetza"ren kontzientzia eta garrantzia.
- Jabetza komuna vs. jabetza pribatua.
- Herria vs. individualismoa.
- Aniztasuna: ohitura ezberdinak, izen ezberdinak, antolaketa mota ezberdinak,...
- Zer nolako gauzak konponduko ditugu auzolana eta batzarretan? Zeintzuk dira gure arazo printzipalak? Arazo horien aurrean berdina gara? Interes berdina ditugu?
- "Iraganeko" osagai kulturalak bildu "gaur egunera" egokituz ikuspegi kritiko batetik; ez gara baserrian bizi (% 3-4 bakarrik).
- Indibidualki aski izaterik ez dago, beraz auzolana eta konpromiso kolektiboa askitasuna bermatzeko bitartekoak dira.
- Konpromiso kolektiboa ---> militantzia XXI. Mendean.
- Interes kolektiboak zein diren identifikatzen ikasi behar dugu, lehentasunak adostu gure eginahalak zertan inbertituko ditugun jakiteko.
- Zer izan da auzolana/herrigintza eta guk zer nahi dugu izatea?



Aurreko ekarpen labur eta sintetiko horiek guztiek ezin dute ikastaroaren bi egunetan talde txikietan zein handian eginiko solasaldi guztien berri eman; baina

badira ikastaroaren partaide izan ginenok egin genituen hausnarketa pertsonala eta kolektiboaren emaitza eta abiapuntu polita eskaintzen dute gogoeta egiteko.

Auzolana eta herrigintzaren ezaugarriak aztertzeke orduan, identifikatu genuen lehenengo ikasketa bi kontzeptu horiek zer duten batera eta zer bereizgarri zehaztea izan zen. Alde batetik biak, auzolanak zein herrigintzak, badute ezaugarri eta osagai komun batzuk: **elkarren beharraren kontzientzia oinarria duen bizitza irudikatzeke modua; kontzientzia kolektiboan, talde-kidetasunean edo nortasun kolektiboan oinarritzea eta berau elikatzea; herritarren parte hartzearen nahitaezkotasuna eta protagonismo zentrala baieztatzea; eta balio zehatz batzuk birsortzea... elkarlana, laguntza, elkartrukea, elkartasuna, doakotasuna, banakako eta taldeko konpromisoa, belaunaldien arteko loturaren garrantzia, batera jardutearen ezinbestekotasuna (“bakarrik ez, guztion artean bai”), auto-antolaketa, burujabetasuna, konfiantza, enpatia, maitasuna,...**

Baina badira kontzeptu bakoitzak bere aldetik propioak dituen ezaugarri batzuk ere, **auzolanak historikoki jabetza komunalarekin eduki du lotura zuzena, beharrizan kolektibo batzuk eta jabetza komun baten zaintza ziren abiapuntua (bideak txukuntzea, azpiegiturak egitea edo egoera onean mantentzea,...) eta auzolan horrekiko nolabaiteke betebeharra zegoen, baita ordenantza bidez arautzen ziren zigor sistemak ere.** Horrekin batera, auzolana deitu izan zaio ere **elkarren laguntzarako egiten den doako lan kolektiboari;** lanaren bolumenagatik eta gogortasunagatik (uzta biltzea, txerria edo behia hiltzea, baserriaren konponketa,...) esku askoren beharra zegoenean, guztion onurako den txandakako antolaketa kolektiboari ekiten zitzaion.

Auzolan historikoak ere bere argi-ilunak edukiko zituen, zalantza eta galdera batzuk sortu zitzaizkigun emakumeek eta gizonezkoek auzolanean zeukaten papera eta errekonozimenduaren inguruan, edo kanpotarrek auzolanetan integratzeko zeuden moduen inguruan.

Edozein modutan, auzolanaren erreferentziaren historikoaz haratago, gaur egun **auzolanean jardutea herritarrok herriaren alde burutzen dugun elkarlana litzateke, berdintasunean eta erabaki-gaitasun berdinarekin.** Eta kolektiboki egiten den hori, nahi edo behar komunei erantzuten die, erabilgarritasun komunitarioa du, interes komuna.

Auzolana herrigintzarako bitarteko edo erreferente nagusienetariko bat izan daiteke, baina **herrigintza kontzeptuaren bitartez urrats gehiago eman genituen ikastaroan burutu genuen gogoeta kolektiboan**: arestian aipaturiko balioetan oinarriturik eta herritarren parte hartzearen ezinbesteko protagonismoarekin, **herrigintza litzateke herria egitea elkartasunezko etorkizun kolektibo bat eraikitzeko**. Eta horrek dakar, ezinbestean, herrigintza etorkizun komun hori **beste gizarte-eredu baten arabera eraikitzeko ahalegin bezala** irudikatu genezakeela.

Izan ere, herrigintzaren berezko balioak eta logikak (elkarlana, interes kolektiboa, enpatia, konfiantza, auto-antolatua, burujabea,...) kontrajarrita daude gaur egungo gizarte-ereduan indarrean dauden balio eta logika nagusiekin: lehia, interes partikularra, etekina,... Baita erakunde publikoen aldetik ezartzen diren printzipio batzuekin ere: delegazioa, banakako hiritartasuna, arautze zentralizatua eta zurruntasun juridiko burokratikoa,... Horrexegatik, gaur egungo herrigintzak, auzoa egin eta herria bizirik mantentzeko ekimenak sustatzeaz gain eta horrela desartikulazio sozialari aurre egiteaz gain, **indarrean dauden joera eta balioekiko eraldatzailea izan beharra dauka** eta, ondorioz, **ikuspegi kritiko batekin** landu beharreko **jarduera kolektibo anitza, irekia eta ez unformatua** genero, kultura, ideologia edo adinaren arabera.

Horregatik guztiagatik, herrigintzaren funtsezko ezaugarriak ere badira **sortzailea izatea, auto-kritikoa, demokratikoa eta ez-patriarkala (partaide guztiak zilegitasun eta erabaki-gaitasun berdinarekin), ekologikoa, ez-kontsumista, aniztasun kulturalaren defendatzailea eta pertsona-komunitatea oreka zaintzen duena**.

Eztabaidatzeko astirik izan ez genuen tentsio dialektikoa agertu zitzaigun herrigintzaren ezaugarritze honetan. Alde batetik herri kontzientzia eta horren araberako konpromiso kolektiboaren garrantzia, beste aldetik, pertsona-komunitatea oreka zaindu beharra eta askatasun pertsonala ere bermatu beharra. Hortik ondorioztatu genuen herrigintzak izaera irekia, anitza eta heterogeneoa edukitzearen garrantzia (dibertsitatearen uztartze horizontala).

Beraz, askatasun pertsonala eta konpromiso kolektiboaren artean litekeen tentsio hori bideratu beharra dago baina pertsona eta kolektibitatearen arteko

dikotomia faltsuetan jauzi barik (kapitalismoak eta neoliberalismoak kontrajartzen dituzte askatasun indibiduala eta kolektiboa, bigarrena ukatzeko eta lehena kontsumo-erabakietara mugatzeko). Izan ere erabakimen pertsonala eta, era berean, afera kolektiboetan parte hartzea zein erabakimen kolektiboa edukitzea ez dira elkar baztertzen diren kontuak elkarren osagarriak baizik. Gure bizitza pertsonalaren gauzak erabaki nahi ditugulako parte hartu nahi dugu erabaki eta jardun kolektiboetan.


Mendebaldeko gizarte-eredu kapitalista eta patriarkalak, bere pentsamendu dikotomiko eta manikeoarekin, kontzientzia eta konpromiso kolektiboaren higitze etengabekoa elikatzen du eta dirua edo teknologiaren araberako auto-sufizientzia indibidualaren irudi faltsua barneratzen digu (itxurazko "auto-askitasuna", arazo kolektiboak eta estrukturalak ezintasun pertsonala bezala barneratzera eramaten gaituena). Faltsukeria horiekin subjektibitate otzanak eta desitxuratuak (kapitalaren beharren araberako pertsona funtzionalak eta enajenatuak: lehiakorrak, kontsumozaleak eta ardurak delegatzearen aldekoak) sortzen ditu. Pentsamendu, eredu eta joera horiek **bizitzarako funtsezkoak diren elementuak ahultzen ari dira**, naturarekin zein ingurune sozialarekin **elkarren zaintzarako behar ditugun artikulazio kooperatiboak**.

Ezinbestekoa, beraz, gizaki bezala berezkoa dugun elkarren beharra eta ekimen kolektiborako sena elikatzea. Izan ere, sen horrexegatik ez bada zergatik jarraitzen dugu elkartzen? Zergatik sentitzen gara hobeto beste batzuegan (enpresa, erakunde,...) delegatu barik gu geuk edo ingurukoek antolatzen eta protagonizatzen dugunean zerbait? Zergatik gogobetetzen digu gehiago?



Ikastaroaren lehenengo goizak aurreko elementu, gogoeta eta galdera horiek guztiak eman zizkigun. Arratsaldean, bazkari goxo baten ondoren, **Marije**

Apodakak auzolan eta herrigintza prozesuetan aspektu funtzionalaz gain (helburuak, zereginak,...), aspektu afektibo eta emozionalen inguruko gogoeta aurkeztu zigun: emozioak eta pertsonen arteko harremanak talde lanean. Jarraian, berak agertutakoaren haritik, galdera honi erantzuten saiatu ginen: **auzolan eta herrigintzaren ikuspegitik, zer landu beharko genuke gehiago talde harremani dagokienez?**



Enpatia, harremanak: sareak, talde izaera landu, elkarrekintza. Begirunea. Entzun eta ulertu. Jarrerak malgutu. Emozioak landu. Metodologia. Plangintza afektiborako tresnak. Konpromisoa. Heziketa emozionala. Patriarkatua. Biolentzia objetiboa. Autoestimaren lanketa, autoezagutza. Dialektikari beldurra kendu. Errekonozimendua. Indartu eta saretu, komunikazioa. Gatazken konponketak. Gorpuztasuna eta emozioak modu planifikatuan landu. Errespetua, elkartasuna. Irekitasuna. Ekimen intergenerazionala. Pertsona eta kolektiboaren arteko oreka. Taldearen nortasuna. Jendartea ez gureganatu, baizik eta loturak sortu. Parte hartze ereduak aldatu. Malgutasuna. Kontra egitetik elkarrekin eraiki.

Talde zein eragile sozialen esparru funtzionala eta emozionalaren inguruko gogoeta burutu genuen ikastaroaren atal honetan. Garrantzi handiko dimentsioa dugu hau, auzolan eta herrigintzaren alderdi kultural, ekonomiko eta politikoarekin batera uztartu eta sakondu nahi izan genuena. Gure egunerokoan sarritan ahaztu edo baztertu ohi dugun gaia da, izan ere, taldekideen arteko harremanari, emozioei, rol banaketari eta pertsona zein kolektiboaren arteko orekari **behar duena baino arreta gutxiago eskaintzen diogu.**

Arlo sozio-emozionalak eragin zuzena du taldearen helburuen garapenean eta baita bizi-iraupenean ere. Herrigintzaren oinarrien artean aurkitzen dela esan genezake, eta asko dira gure egunerokoan topatu ohi ditugun elementu negatiboak, hauexek ikastaroan aipatutako batzuk: emozioen inguruko itxitasuna, sexismoa,

beldurrei aurre egiteko baliabide eza, enpatia falta, talde harremana karga bezala ulertzea... **Norbere emozioak eta taldearenak bistaratu eta landu** beharreko helburuen artean kokatu behar ditugu, **talde barneko botere harreman hierarkikoak gaindituko dituen bide berriak zabalduz.**

Pertsonen arteko botere harremanak, genero sisteman oinarri nagusia du. Eta herrigintzaren logiken baitan **sexu eta genero diskriminazioak eguneroko praktikan islatu ohi dira.** Ezinezkoa dugu beraz, emozioen garapen integrala eredu patriarkaletik kanpo kokatzen ez bagara. Herrigintza eta auzolanean dihardugunean, emakume eta gizonen arteko ezberdintasun sozialak eraldatuko dituen estrategietan ere lan handia dugu egiteko.

Talde arteko harremanen dimentsio funtzionalean sakontzeko denbora nahikorik ez genuen izan. Taldearen helburuak eta emaitzak, lan metodologia eta baliabideen inguruan gauza asko landu gabe utzi bagenituen ere, **talde trebakuntza edo formazioa** gai honi aurre egiteko bide egokia izan zitekeela nabarmendu genuen.

Talde antolaketaren bi adar hauek azpimarratu nahi izan ditugu, auzolana eta herrigintzaren berrikusketa honetan. Bi hauetaz gain beste asko ere egon arren, talde harreman eta talde funtzionamenduaren dimentsioak neurri handi batean herri ekimen askoren baldintzatzaileak dira eta, ondorioz, **zaindu eta lantzeko espazioak eta baliabideak** bideratu behar ditugula uste dugu.

Talde arteko harremanen gogoeta amaitu ondoren, **Jon Sarasuaren** eskutik auzolanaren eta herrigintzaren begirada politikoari ekin genion eta, kasu honetan ere, bere azalpena entzun ondoren, honako galdera hau landu genuen talde txikietan: **Zertan gauzatu daitezke herrigintzaren logikak politikagintzaren arloan?** Ondoko ideia hauek sortu genituen:



Debatean topatu genuen lehenengo zailtasuna galderaren inguruko nahasmena izan zen, nahasmen adierazgarria.

Izan ere, politikagintzaz hitz egiteko orduan ulertu daiteke sistema politiko-instituzionalaz soilik ari garela, sistema politiko ofiziala eta bere erakundeak gobernatzeko edo beraietan eragiteko lehian ari diren eragile ezberdinaz (alderdi politikoak, gizarte eragileak, presio-taldeak,...). Galdera eta debatearen zentzua, aldiz, ez zen horretara mugatzen; hau da, **sistema politiko-instituzionalaren inguruan dagoen botere borroka alde batera utzi barik** (azken finean gure bizimodua eta gure ingurune soziala zein naturala eragiten duten proiektu eta inbertsio garrantzitsuak erabakitzen dituzte bertan), politikagintza modu zabalago batez ulertzeko saiakera zegoen galdearen intentzioan.

Politikagintza botere harremanei erreferentzia egiten dion kontzeptua izanik, **eguneroko bizitzaren espazio eta harreman komunitarioetan herritarrok protagonizatzen dugun politika egiteko moduz ere** eztabaidatu nahi genuen. Feminismoak aspaldi erakutsi zigunez, publiko eta pribatuaren arteko dikotomia liberala gainditu beharra dago, arlo pertsonalean edota taldekoan kokatzen ditugun jokaera eta harreman asko guztiz politikoak baitira. Hau horrela ulertuta, herrigintza

bera, herria egiteko eta elkertasunezko etorkizun bat eraikitzeke ahalegina den neurrian, botere harremanak bideratzeko eta, ondorioz, gauzak eztabaidatzeko, erabakiak hartzeko eta ekiteko berezko moduak eduki beharko lituzke, modu herrikoiak.

Beraz, galderak ipini nahi zituen hizpideen artean bazegoen ere, politikagintza sistema politiko-instituzionalera murriztu barik, nolako politikagintza herrikoia behar dugun.

Kurtsoan egindako debatearen ondorio eta erronken atalean antzeman daitekeen moduan, gure gogoeta kolektiboan azpimarratu genituen lehenengo bi elementuak ondoko hauek izan ziren: **benetako demokraziaren beharra eta politika egiteko bestelako moduen urgentzia**. Ordezkaritzan/delegazioan eta egitura bertikalean oinarritzen diren erakundeek (gizarte erakundeek zein erakunde publikoek) sinesgarritasuna galdu dute, politika **behetik gora eta herritarren protagonismoarekin** egin beharra dago.

Hau da, demokrazia zuzenaren mekanismoak aktibatuz, **erabaki ahalmena herritarron esku** egotea lortu beharra dago; baina, horretarako, herritarren beharrei erantzungo dieten debate sozialerako guneak sortu eta, jendartearen auto-antolaketa logika sendotuz, elite ekonomiko eta politikoaren esku galdutako ekimena eta boterea berreskuratu beharra dago. Finantza eta ekonomiaren arloko eliteak, politikari profesionalekin batera, gutxi batzuen aldeko politika publikoak egiten ari dira guztion diruarekin (espekulazioaren eta dirua metatzearen aldeko politikak etxebizitzan, hirigintzan, garraio-azpiegituretan, zerbitzuetan, etab.).

Erronka nagusienetariko bat, beraz, **antolakuntza sozialaren des-merkantilizazioa** da. Merkatuaren logika lehiakor eta lukratiboak erabateko nagusitasuna lortu du beharrizan sozialen erregulatzailer bezala, eta etengabe ari da kolonizatzen administrazio publikoaren eremua. Adibide bezala, ikastetxetako jantokien antolaketa ipini dezakegu, azkeneko urteotan administrazioak enpresa pribatuen Katering-eredua bultzatu duen bitartean, zenbait ikastetxetan guraso elkarteek eutsi eta indartu egin dute auto-gestionatutako jantokiak (ikastetxean bertan eginda eta tokian tokiko elikagaiak erabiliaz, kalitatezko elikadura bermatzea ikasleei eta langileei, elikadura subiranotasunaren ildotik). Horrela, nagusitasuna bereganatu duten bi botere-egituren aurrean (merkatua-kapitala eta estatua-burokrazia) **jendartearen auto-antolakuntza eta auto-eraketa indartuz**, zerbitzuen des-merkantilizazioa lortzen dugu, merkatuko eliteen boterea ahulduz

eta administrazio publikoaren birmoldaketa sakona exijituz, benetan herritarren interesen arabera funtzionatzeko.

Goitik beherako amets iraultzaileari itxaron barik, **jendearen beharrei erantzuteko auto-antolaketan oinarritutako soluziobideak artikulatuko ditugun neurrian; hau da, behetik gorako espazio auto-eratuak sortu eta saretuko ditugun neurrian**, eragin-ahalmena kentzen diogu merkatuari eta ahalmen gehiago eskuratuko dugu administrazio publikoaren babesa borrokatzeko.

Beraz, politikagintza herrikoiak oinarria du herritarren zuzeneko protagonismoa eta erabakimena. Baina printzipio horiek gauzatzen joateko, komunikatzeko, debatzeko eta parte hartzeko guneak/foroak zabaldu edota sendotu behar ditugu. Oso espazio zainduak izan behar dira **politika egiteko bestelako modu horizontalak eta parte hartzaileak garatu ditzagun eta herrigintzaren balio-sistemaren araberako harremanak eta funtzionamendua** eduki dezagun: parekotasuna erabaki ahalmenean, laguntza eta elkarlana, besteen errespetu eta errekonozimendua, elkartasuna eta lehenasuna estrukturalki diskriminatuak direnei, etab. Eta, horrela, jendearen auto-antolaketaren araberako erantzunak aktibatzea.

Izan ere, herrigintzan eta herri ekimenetan bestelako politika bizi behar dugu: **harreman giro sortzailea, inklusiboa eta erakargarria sortzea; malgutasunez, elkar ulertzea eta gauzak adostea erreza egitea; gatatzak ikasbide bihurtzea; eta elkartasunezko eredu sozial, politiko eta ekonomikoaren alde, talde kohesioa, ilusioa eta elkarlana indartzea**. Azken finean, jendarte antolatuagoa, ekintzaileagoa eta boteretsuagoa izateko baldintzak sortzea.



Ikastaroaren bigarren eguneko goiz partean, **Yolanda Jubetok** bere hausnarketaren berri eman zigun auzolana eta herrigintzaren inguruan ekonomiaren ikuspegitik. Aurreko eguneko lan dinamika jarraituz, bere aurkezpena entzun eta gero talde txikietan galdera honi erantzun genion: **zertan gauzatu daitezke herrigintzaren logikak arlo ekonomikoan?**

Galdera honi erantzuteko mantelaren dinamika erabili genuen eta bertatik ondoko hausnarketa gurutzatu hauek jaso ahal izan genituen:

- Herri mugimenduak beharrezkoa du lana zer den eta zer ez den eztabaida bultzatzea, alegia, zein lan diren beharrezko eta onuragarri bizitza duin bat egiteko; kontutan hartuta lan horietako asko edo gehienak ez direla "ordaintzen" eta batzuk "inmaterialak" direla. Hortaz gure bizitzarentzat beharrezkoa den ekonomia garatzea, ez merkatuak behar duena.
- Ados, lana eta enpleguaren arteko bereizketa hautsi beharko genuke, enplegua lanaren (zaintza, etxeko lanak...) menpe baitago. Beharizanen baitako lana kuantifikatu beharko genuke.
- Altruismoa, lankidea etsai izatetik kide izatera pasatzea. Egia esan, gure kulturagatik beste Europako herri batzuetan baino elkarbizitza hobea dugu, baina hobetu. Langilea pertsona da ez eskulana.
- Eta klase kontzientzia jabetu?
- Auzolanaren baitan erakunde publikoak, enpresak eta herri eragileak bildu behar diren proposamenean zalantzak sortzen zaizkit, enpresak irabaziak irabazteko logika dutela oinarri harturik. Enpresa: dirua irabazi vs auzolana doan.
- Nire ustetan, elkarlan hori beharrezkoak izan daiteke. Alabaina, auzolanaren helburua ezberdintasun soziala sortzen duen diru irabazi asmoaren alternatiba ekonomikoa sortzea da.
- Truke "sozialaren" (nondik hasi? Edo jarraitu?) aldeko dinamikak dira bultzatu beharrezkoak, monetarik gabeko trukeak eta deshazkundearen baloreetan oinarritua. Nolabait, onurak diru irabazietan neurtuko ez direnak (onura edo irabazi afektiboa, sozial-komunitarioa, emozionala,...)
- Poliki, poliki. Aldaketa posiblea da.
- Iruditzen zait hezkuntza sistemak, aisialdiak,... badutela zer egin arlo honetan.
- Kontsumo kontzientea: Nori ematen diogun dirua: zer/nor indartzen dugu? Non eginda dagoen, zelan, zerekin, nork saldu,... (ahalik eta bitarteko gutxien izatera joan)
- Diruaren boterearekin ¿????¿: diruaren inguruan hausnartu
- Elkarlana bizitzako esparru guztietan
- Beste kontsumo mota bat; elkartrukea esperientziak gehitu auzolanean
- Bertakoa, gertuko, lagun ekoizleak, lagunak, etxekoa erosi, etxekoa eskaini.
- Ekonomia horizontala bultzatu. Denon artean denontzat, bakoitzak ahal duen moduan aportatuz. Denon ongizatea izatea helburu eta ez bakoitzarena (norbanako zein kolektiboen artean)
- Elkartasuna (ikuspegia) ekonomian txertatzea lortu behar dugu, ez soilik gure eremu familia/pribaturako dohai bezala utzi.
- Elkartasuna familian ere aldatu egin da. Familia nukleoak askoz handiagoak ziren lehen (gurasoak, seme-alabak, senitartekoak, auzotarrak...). Orain familiak asko jota bost

lagunekoak dira. Eta askotan nor bere bidetik dabil, elkarri eragin gabe, independente. Etxetik hasi beharko genuke elkartasuna zabaltzen.

- Auzolanaren bidez beste eredu ekonomiko bat sortu dezakegu. Gaur egungo sistema ekonomikoa ez da jasagarria. Diru gutxiago erabiliz, antolatu eta denon eskulanari esker amets eta behar pila bat lortu ditzakegu. Diruan soilik oinarritzen ez den eredu bat sortzea ahalbidetzen du, honek sortzen dituen desorekak gutxituz.
- Zaila izango da dirua erdigunetik kentzea.
- Beharrezkoa da egun eredu aldatzeko. Pertsona ardatz hartu eta baldintza duinagoak eta parekoagoak guztiontzako.
- Beharrezko kolektibo erantzungo dien logika ekonomikoak sustatu. Horretarako, beharrezko litzateke auzolanean iraunkorki jardungo lukeen sare-egitura bat, zeinak beharrezko kolektibo horiek zehaztuko lituzkeen.
- Lankidetzak hartu behar da oinarri bezala arlo ekonomikoan ere. Denon beharrezko asetuen behar dira lanaren bitartez.
- Behar horiek, bizirauteko ezinbesteko bezala ulertzen ditugunak dira.
- Bankuen logika aztertu, eta birplanteatu finantza sistema, horizontaltasuna helburu.
- Etxeko lanak eta zaintza lanak kontuan hartuta. Familia ekonomia unitate inportantea dela gogoratu eta familiaren beharrezko asetuzko lana egin. Merkatua egon bada, baina merkatutik kanpora ere lanean aritzea oso inportantea da; "dohainik"
- Sistema honetan jarraitzen dugun heinean, zaintza, etxeko lanak, etxeko goxotasuna eta halako lanak balioan jarri behar ditugu eta ekonomia balioetara ekarri dohaineko lan guztiak kontabilizatu eta Barne Produktu Gordinean sartu behar dira.
- Azken batean herrigintza ere ekonomia da. Kostua txikia baina, errentagarritasuna oso handia dauka. Hau ekonomian txertatzeko moduko eredu bada.
- Guztion ongizatea interes publikoa da (denok egin beharko genuke bat horretan); beraz, berdintasunean eta elkartasunean oinarritu beharko genuke egitura ekonomikoa. Horrela balitz, denok irabaziko genuke (dirutan gutxiago bada ere), eta ez orain arte moduan, gutxi batzuk asko irabazten dute (dirutan, kasu honetan), eta gehienok asko galtzen dihardugu. Hala ere, badijadi argi gorriak piztu direla hau eta hemen, eta zerbait aldatu beharrezko premia pizten dela.
- Interes publikoa, nola, nor, noiz... definitzen da/du? Zer da aldatu behar duguna?
- Guztiona azpimarratzea oso beharrezkoa dela deritzot, izan ere, ongizatea gutxi batzuek ezarritakoa da eta gutxi batzuentzako.
- Indibidualismo metodologikoa baztertu eta herritarren saretzeak ekonomia justuago batera bideratuko du gizartea. Guztion beharrezko ezagututa, aberastasunen banaketa justuago bat lortu asmoz. Ekonomia ekologikoa gertuko = garestiagoa, urrutikoa = merkeagoa: merkatuan bai, baina horrek sortzen dituen albo ondorioak? (kutsadura...)
- Mailegu sistemak itotzen gaitu. Baldintzatzen du erabat gure bizimodua
- Behar izanen hierarkia adostu beharko litzake. Egungo eredu kontsumitzailean behar izanak erabat puztuak baititugu, logika produktibistaren ondorioz.
- Ekonomia ongizate kolektiborako bitartekoa dela ulertarazi behar du Auzolanak. Pertsonen beharrezko egokitzen lagundu dezake.
- Ni-tik Gu-ra joan behar dugu berriz. Ongizate kolektiboa norberaren ongizatea ere bada. Gaur egun "ongizatearen gizartean" bizi garela diote. Baina gezurra da. Ongizate diruarekin lotzen dute.
- Elkartasuna maila ekonomikoan. Gai honekin tabu bat dago gizartean. Ni- Gu
- Ekonomiak baina ahalmen gehiago duela pertsonen arteko lankidetzak. Lankidetzak ekonomia banaketa justu eta solidarioago bat sustatu dezake. Ekonomiak "ni" pertsonan bizitzera, kontsumitzera eta ondorioak jasatera eraman gaitu; eta herri mugimenduak hau alda dezake taldea, herria, auzoa,... indartuz. Emakumearen ikuspuntua eta esku hartzea indartu daiteke.

- **Ekonomia feminista**
- **Biba emakumeak! Horien izaera + baloreak gizakiari transmititu behar zaizkio. Ezin dugu emakumeen eta gizonezkoen bi munduak mantendu.**
- **Ekonomia solidarioa bultzatu behar dugu, baloreak galtzen ari dira. Altruismoa eta egoismoaren kontra elkartasuna bultzatu behar dugu. Hau da, elkarlana.**
- **Esperientzia ugari daude herri mugimenduetan, horrek eragile funtzioa hartu behar du ekonomian oro har eragiteko. Era berean, botere harremanak ahulduko edo ahultzen joango dira, horizontalagoak bilakatuz.**
- **Egoismoaren aurka elkartasuna baina altruismoaren aurka? Altruismoa indartzeko elkartasuna?**
- **Ekonomi berria sortuz. Merkatuko legeak guztiz manipulatu. Baliabide ekonomikoak herrigintzan inbertituz. Herrigintzaren ekoizpenak balioan jarritz. Pertsonen gozamina dirua baino baliagarriago bihurtuz.**
- **Herrigintzaren autosorkuntzan inbertituz. Herrigintzaren beharretatik abiatutako ekonomia martxan jarritz.**
- **Ekonomian ematen den logika indibidualistatik, logika komunitario batera pasatzen hasi. Ekonomia solidarioa komunitatean oinarritua, behar kolektiboetan pentsatu ere, ez soilik i indibidualetan.**
- **Behar kolektiboak ez dira behar indibidualen batuketa soila. Hori bai, beharrak zeintzuk diren definitzeko elkarrenganako dependentzia gauza ona bezala ulertuz.**
- **Jabetza pribatuaren logikan oinarrituriko dinamikak jabetza kolektibora bideratzeko ahalegina egin beharko luke herri mugimenduak. Izan ere, jabetza pribatuaren existentziak berak izaera komunitarioaren oinarria den berdintasunaren ideia ezeztatzen du.**
- **Ekoizpen bitartekoak herrigintzan oinarrituriko erakunde demokratiko baten esku utzi.**
- **Badaude bitarteko batzuk oztopo izan daitezkeenak, ez? Horiek herrigintzan oinarritu beharrean ez lirarteke kendu behar?**
- **Ekonomian, merkatutik kanpo dauden elementu/faktoreak ere gehituz: etxeko lanak... Indibidualismo egoista horretatik aterako gaitu beste teoria ekonomiko bat. Indibiduotik komunitatera pasa.**
- **Jauzi honek bi maila izan behar dituela ikusten du: 1) Baloretan eragin (Elkartasuna zergatik? Ezin gara bakartuta bizi, gainera ez dugu nahi!) 2) Guztiok zerbait irabazten dugula irudikatu (enplegu orden gutxiago, erosotasuna...)**
- **Herrigintzaren logika norberaren txip aldatetatik hasten da. Merkatuaren eta autonomia ekonomikoaren legeekin bat egiten badugu gure bizitzako alor batzuetan, posible ote da benetako auzolana lortzea besteetan?**
- **Espazio ekonomikoak sortu: Elkarte, erakunde, taldeetan: horizontaltasuna jorratu: erabakiak hartzeko eta ekonomia lan harremanetan txertatzeko.**



Lana eta enpleguaren arteko bereizketa hautsi.
Elkartasuna ekonomian txertatzea. Beste kontsumo mota bat;
elkartruke esperientziak gehitu auzolanean. Gaur egungo eredu
aldatu. Pertsona ardatz hartu eta baldintza duinagoak eta parekoagoak
guztiontzako. Beharizan kolektiboek erantzungo dien logika
ekonomikoak sustatu. Lankidetzaren arlo ekonomikoaren oinarri.
Finantza sistema berplanteatu. Indibidualismo metodologikoa
baztertu eta herritarren sareak ekonomia justuago batera bideratuko
gaitu. Ekonomia ekologikoa, gertukoa. Ekonomia ongizate kolektiborako
bitartekoa dela ulertarazi behar du auzolanak. Elkartasuna. Ekonomia
feminista. Herrigintzaren autosorkuntza inbertitu.

Auzolana eta herrigintzaren begirada ekonomikoaren analisisian ekarpen ugari jaso genituen, beraz. Yolanda Jubetoren azalpenaren bitartez ekonomiaren ibilbide historikoaren errebaso laburra egin ondoren, ekonomia feministak egindako hausnarketa kritikoa ere entzuteko aukera aparta izan genuen. Beraz, ikuspegi orokor batetik abiatu ginen egun nagusitzen den eredu ekonomikoak talde eta eragile askoren egunerokoan duen eragina aztertu eta eztabaidatzeko.

Logika komunitarioa merkatu logikaren aurrean indartzeko eman beharreko urratsak aipatu ziren, trukea, lankidetzaren, gune ekonomiko berriak eta beste hainbat proposamen jaso ahal izan genituen. **Eredu ekonomiko berri baten beharra nabarmendu zen, pertsona eta taldearen bizitza ardatz** izango duena, taldearen beharrezko erantzungo diona. Gizarte eredu patriarkal eta kapitalista honetatik urrunduko gaituen antolaketa eredu berri honek norbere egunerokoaren berrikusketa kritikoa lekarke, auto antolakuntza kolektiboarekin batera.

Merkatuaren logikak irentsi gaituen garaian bizi gabela aitortu arren, auzolana eta herrigintzak aldaketarako aukera interesgarriak eskaintzen dituela aipatu zen. **Lankidetzarako eta sarean lan egiteko formula berrien** inguruko aipamen ugari jaso ziren.

Aurreko saioetan auzolana eta herrigintzaren inguruan landu genituen alderdi ezberdinak (historiko-etnografikoa, talde harremanena, politikagintzarena eta ekonomikoa) osatzeko, kulturgintzaren begirada landu genuen ikastaroaren azken aurreko saioan. Gotzon Barandiaranek eta Igor Elortzak eskainitako gogoetarekin eman genion hasiera alderdi horren jorrocketari. Euren ideiak eta proposamenak entzun ondoren, kasu honetan ere mantelaren dinamika erabili genuen hausnarketa pertsonala eta taldekoa uztartzeko: **zertan gauzatu daitezke herrigintzaren logikak arlo kulturean?** Denon artean sortutako erantzunak eta gogoetak jarraian azaltzen diren hauek izan ziren:

- **Parte-hartzen duten eragileen arteko parekotasuna beharrezkoa da**
- **Bale, baina errealista al da? Ez ote da txikiaren (herrigintza) ezintasuna gainditzeko saiakera, botere handien aurrean (kapitala eta estatua).**
- **Txiki-haundi logika apurtu behar da Auzolanaren bitartez!**
- **Auzolana norbanakoek egiten dute edo subjektu kolektiboen artean (talde ezberdinen artean) ere egin daiteke?**
- **Botere harremanen sistema eraldatu behar horretarako!!**
- **Kultura sortu, gozatu daiteke txikitasunean ere. Ez daukagu botere beharrik, goserik... gurean eusteko eta bizirik jarraitzeko. Kultura arima elikatzen du, ez sabela. Beno, idazlea ez bazara... kar, kar, kar**
- **Baina zertan dira handi, kulturari dagokionez, estatua eta kapitala? Estatuak erabat bideratu diezaguke sentimendua/ pentsamendua?**
- **Arlo kulturala ez da entrenamendua soilik, askoz ere gehiago da. Ikusleak (hartzaileak) jaso dezakeena herrigintzaren bitartez eginiko hausnarketa jaso daiteke.**
- **Honez gain, sortzaileen edo eragileen artean horizontaltasuna eta elkarlana beharrezkoak dira.**
- **Kulturgintza (kultur sormena eta horren inguruko dinamika) da harreman, emozio eta sozializazioarako berezko eremuak eta aldi berean, baloreen transmisioarako bide egokia.**
- **Sozializazioa gauzatzeko, transmisio kanalak zurruntasun gabekoak eta horizontalak izan behar dute**
- **Kultur sormena era askotakoa, forma ugari eta anitzak, izan daiteke edo izan behar du herriaren (pertsonek) aniztasunari erantzuteko. Forma eta arlo ezberdinen arteko jerarquizaziorik ez ezartzea, kultur adierazpen ezberdinei balore berbera ematea.**
- **Kultur sormenak kritikoa eta eraldatzailea beharko luke izan; bai sortze prozeduretan, eta baita sortutako produktuetan.**

- **Kultura bideragarria eta jasagarria**
- **Kultura herrikoia eta bertakoa.**
- **Likidoa, bustiko gaituena; hasteko.**
- **Bertakotasuna ezin da "lur" modura bakarrik ulertu. Pertsonak ere badira: Txirrita bezain "ni" izan daiteke Bob Marley (eta "gu").**
- **Kultura denon ondarea dela zabaltzea herrigintzaren lanean aritzeko, Platerurenaren adibidea; eskolen parte-hartzea ezinbestekoa da. Denon parte-hartzea sustatzeko, badugula kulturari zer eman argi izan behar dugu**
- **Kultura da ziurrenik, ideologia eta mundu ikuskera ezberdinetako herritarrak biltzeko gaitasun handiena duen pertsonen jardura.**
- **Jendea kulturaren parte sentiaraztea zaila izan daiteke.**
- **Jai herrikoia**
- **Komunitatea: Kulturaren oinarri eta baloreen transmisioa**
- **Lehenengo jaso eta ondoren biharkoa sortu**
- **Egiten dugunari zentzua ikusi!**
- **Gutziz bat egiten dut euskal kulturgintzaren muina eta arima herri mugimendu (auzolana, herrigintza...) dela: batzuetan ordea, herri mailatik hasi eta eremu handiagoetan gogoeta konpartitu horien beharra sumatzen dut. Bakoitza berean, pixkat noraezean gabiltzala sentitzen dut...**
- **Horrexegatik, berriro diot, herrigintzak agente kulturalen sarea behar duela (tokikoa, bailarakoa... lekuaren arabera), gogoeta horiek partekatzeke ea.**
- **Auzolanek berdin balio lezake auzo, herri, eskualde, herrialde zein Euskal Herri mailarako. Euskal kultureko eragile eta hartzaileak identifikatzea ez dago kopuruari baldintzatuta.**
- **Baina ez ote dugu dena gehiegi kontrolatu-antolatu-ordenatu nahi? Ez ote da utzi behar sormen-kulturala libreago-kaotikoago, hainbeste saretze eta antolaketa gabe, mundu eta garai konplexu bati dagokion bezala?**
- **Antolatu, antolatu, antolatu...txanpiñoien iraultza indibidualik ez mesedez!**
- **Sorkuntza desberdinak publikatzeko baliabideen (aldizkari,fanzine...) atek zabaltzea, berriak sortzea.**
- **Baliabideak sartzeko eragileak harremanetan jartzea, elkar eragiteko, esperientziak trukatzeko, tresnak konpartitzeko...**
- **Elkar ezagututa indar metaketa izan daiteke. Askotan helburu berdinak edota antzekoak dituzten taldeak sortzen dira. Jadanik daudenen ezagutza eta esperientzia ere izateko balio dute.**
- **Baliabide horiek, fanzine, aldizkaria...izateaz gain, guneak ere izan daitezke. Gune esperientzialak elkarren arteko sareak sortzeko ere lagungarri izan daitezke. (kobazulo edo gune itxi bilakatzeko aukera/arriskua izan dezakete?).**
- **Idatzizko formatua edo formatu digitala edo zuzeneko formatua: Elkartrukerako eta zabalpenerako formatu berririk sortu beharra. Betikoa berrasmatu.**
- **Kultur eragile ezberdinak elkar ezagutzea, bata bestearen baliabideak eta beharrak ezagututa... aurrerantzean sorkuntza lanak duintasunez gauzatzen erraztea.**
- **Eragile kulturalak elkarlanean aritzen badira irekiagoak izango dira, jende gehiago egongo da inplikatur lanean, arlo ezberdinak kontutan izango dira eta iraunkorragoak izan daitezke**
- **Sare horizontalak eratu: elkartrukerako sareak.**
- **Eragile kultural anitzak gonbidatu sare horietara.**
- **Sorkuntza parte hartzailea. Sorkuntza elkarlanean.**

- **Elkartasunean oinarritutako elkarlanak beti emaitza aberatsagoak dituela uste dut, hartu-emanaren logikaren bitartez**
- **Gogoeta estrategiko baterako abiapuntu bezala zergatik ez aprobetxatu “foro” hauxe, etorkizunera begira?**
- **Ez da aukera txarra!!!**
- **Nire ustez badira gure kulturgintzaren, topagune, gogoeta gune...funtzioa “ere” bete beharko luketen perlak: korrika, Durangoko azoka...horien bueltan antola daitezke “gogoeta saio” horiek, biltzeko aitzaki legitimo, ezagunak direlako.**
- **Bai, agian orain arte burututakoak “auzolantzat” ditugun eztabaidatu beharko genuke. Auzolantzat izendatuz gero, zein eratako auzolana den aztertu genezake: egitasmoa zelan sortu zen, nori burutu zitzaion, norekin konpartitu zuen, erabakiak nori eta zelan hartzen diren (botere-guneak...) helburuak benetan komunak diren...**
- **Herrietako kultur politikak gidatuko dituen herriko kultur eragile eta hartzaileen bilguneak sortu daitezke.**
- **Politika horietan parte-hartze aktiboa bideratuko duten mekanismo eta tresnak sortzea**
- **Bilgunea badago “gu geu”, gaur, bertan. Asuntua da zelan egin hau bideragarri!**
- **Bideragarria nola egiten da? Gogoarekin, borondatearekin, diruarekin, boterearekin, atxikimendurekin?**
- **Beinke baietz!**
- **Herri, tokiko kultur adierazpen ezberdinen bilgunea, sarea osatu (elkar ezagutzeko, elkarlan posibleak antzemateko...).**
- **Arazoei aurre egiteko bateratzea.**
- **Errotazioa behar du, gune anizduna, talde aniztuna, auzolanaren logikan.**
- **Ados**
- **Azkenean, solastatzen ari garenaren muinean jendartean edo kolektibitatearen beharrak modu planifikatu eta demokratiko batean konpontzen ari gara, eragindakoen parte hartze zuzenarekin.**
- **Ados.**
- **Ikuspegi konpartitutik zerbait planifikatzen has gaitezke.**
- **Nire ustez, tokikoa planifikatu behar da lehenik, gertuen duguna (auzoa, herria...) hortik egiteko planteamendu orokor eta nazionalak. Dena ez da inportablea eta exportablea. Horrek, ez du kentzen, nazio mailako ikuspegitik gaia aztertze beharra, kulturgile “batzuk” horretan ere aritu beharko dira...**
- **Zenbat planifikazio! (Sobietar batasuna ematen du honek).**
- **Pentsatu, sentitu, ekin, hausnarketa-gogoeta.**
- **Kultura politikak herrietan ere adostu egin behar dira. Eguneroko bizimodua, non garatzen dugun, Zergaitik Euskal Herrirako kultura politika eta ez herrikoa?**
- **Dударik gabe herrikoa.**
- **Taldea bilakatu sortzaile eta eragile kulturaren eta arrakasta indibiduala alboratu**
- **Artista-ekoizle versus hartzaile-kontsumitzaile rola gainditu eta kultur eragileak elkarlanean aritu. Horretan bi abantaila: 1. Funtzio soziala, ez komertziala eta 2. baldintzak hobetu.**

- Autoreari garrantzia kendu, copy left eta horrelako egiteko moduak bueltatu eta elkartrukera bueltatu.
- Guztiok sortzaile, sortutakoa guztiona. “Ukitu artistikoa” bizitzaren esparru guztietara hedatu.
- Sortutakoa nahi edo gustatzen zaidalako. Ez saldu beharra dudalako!
- “Profesionalizazio” rako bidea itxi barik, sortzaile, ekoizle, hartzaile...arteko harremana birasmatu
- Sorkuntza horizontalizatuz-herrigintzaren espresio anitzetan bezala, kulturagintzan parte hartzen duten eragile guztien artean ere.
- Sormena, transmisioa, nortasuna.
- Kulturak egiten gaitu eta kultura egiten dugu
- Herrigintza gehi politikagintza gehi E^a
- Instituzioak baliabideak eman herriak kultura egiteko, ez oztopatu.
- Sarea sozializatu, sortu.
- Gaitasuna.
- Euskal kultura eta herrigintza sinbiosian bizi dira
- Ados nago, batak bestearen beharra dutelako eta elkarren beharra delako elkartasunik benetakoenez. Gainera hala ulertu den garaietan izan da euskal kultura indartsua.
- Gaur egun herrigintza, herri mugimendua... kulturagile famatuak, ezagunak... erabiltzen ditu eta ondorioz beraien lanak bultzatu, sortzaile berriei lekuri eta baliabiderik gabe utziz. Hauek (berriak) soilik baliabiderik ez daudenean erabiliz.
- Kultur sormenerako eta harremanetarako dinamika komunitario eta parte hartzaileak.
- Horizontaltasuna ardatz izango duena.
- Komunitatea zeinek osatzen du/te?
- Euskarazko kulturagintzan herritar oso parte izateko euskal hiztuna izatea beharrezkoa bada, leku askotan zaila izango da benetan herritarra izatea.
- Nora arte izan behar du euskara ardatz?
- Horri buelta eman eta kulturagintzak izan dadila euskalduntzeko bultzatzailea ere.
- Kultur sormenak ez du mugarik, hizkuntza internazionala darabil; gure munduko ikuskera euskarak sortua eta euskaraz sortua dela ahaztu gabe.
- Benetako parte-hartzea nahi badugu euskaldunak ez direnak hurbiltzeko zelan egin? Hizkuntza gabe?
- Kultur sorkuntza bultzatu.
- Eragileen arteko elkarlana eta horizontaltasuna.
- Eragile rola zabaldu: antolatzaile, kulturagile, babesle, laguntzaile...sarea osatuz.
- Kultura-kontsumitzailea ere kontutan hartu beharra: sorkuntza eta horizontaltasuna bultzatzen dugunean.
- Kontsumitzaileak baino hartzaileak kontutan hartu, kulturagintza kontsumo logikaz aldeni behar dugu.
- Benetan aske al gara zer kontsumitu aukeratzeko unean? Globaletik edo lokaletik beharko luke?
- Horizontaltasuna plano guztietan modu integralean.
- Sorkuntza-programazio ..tzek aldeniduz.

- Funtzio soziala eremu kulturalan kontutan hartzea.
- Sorkuntza zelan garatu? Ideiak behar dira.
- Guztiok izan gaitezke eragile kulturalak, batik abiatu eta elkarlanean aritu.
- Potentzialki guztiok gara sortzaile "handiak"; heziketaren garrantzia.
- Heziketak egiten gaitu derrigorrezko kultur kontsumitzaile. Hezi dezagun sormen eta kontzientziak. Bizi dezagun kultura.
- Txikitatik sormena aske utzi. Ohartu gabe mugatu edo ereduak jartzen ditugu (eskola gehienetan).
- Sormena ez da beti kultur adierazpide bihurtzen. Kulturgintzak kultur produktua baino gehiago da eta horretan ari direnek ere, "sortzaile" dira eta errekonozimendua behar dute, gogor elikatu eta sortzen jarraitzeko.
- Interesgarria izan daiteke erabakigunearen inguruko lanketa, herri mugimenduak haratago enpresa, instituzio...barnebiltzea. hala ere, berdintasuna bermatzeko tresnarik badago kasu hauetan?
- Erakunde edo herri mugimendu bakoitzak bere espazioa eta gunea izatea garrantzitsua litzateke. Bagara, bagaude. Bakoitzak egiten duenean sinestea eta bakoitzak berea defendatzea. Auzokoari begira denbora eman beharrean, norbereenean lan egitea.
- Gakoa bata bestea ulertu eta errespetatzean dagoela uste dut. Bakoitza bere arloan, bere gaitasunen arabera, baina indarrak bilduz helburu komunen bila.
- Bakoitzak bere arloan lanean, bai, baina besteen lanak, ezagutzen, ulertzen, laguntzen... sarea sortzen.
- Esparruak bereiztea ondo dago (eguneroko kulturgintza eta eguneroko politikagintza adibidez), baina helburuak eta zereginak adostuak badira, auzolanean bat gara...Askatasuna, beraz, erantzukizuna.
- Sorkuntza kolektiboa bultzatuz eta merkaturen logikak alboratuz.
- Diziplina desberdinen arteko elkar ekintza; kulturak "ordain" intrinsekoak ditu merkatuaz gaindi.
- Norbanako zein taldeen sormenerako bideak eraikiz, bakoitzaren ekarpena baloratuz eta komunitatean duen eragin positiboa aitortuz.
- Merkaturia alboratu gabe, kultur ekoizle eta kontsumitzaile bezala eraiki daitezkeen botereaz kontinente izanik eremu guztietan sortzaile izan beharko ginateke denok.
- Beraz, ogibide gisa planteatu daiteke pertsonan bat kulturgile edo sortzaile izate!
- Elkarrekin herritarren parte-hartzea lortzeko mekanismoak sortzea.
- Ez dakit parte hartzeaz aritzerakoan elkarrekin parte hartzeaz edo elkarrekin honek antolatutako ekintzetan izaten den parte hartzeaz ari den, elkarrekin barrukoaz atzo aritu ginen. Elkarrekin arteko parte hartze esparruak interesgarriak izan daitezke.
- Elkarrekin erabakiguneetan parte izan behar dute pertsonak. Elkarrekin parte hartzeko beharra sentitu behar dute, parte organiko sentitu behar dute. Zerbaiten parte direla sentitu: atzo aipatu zen espiritualitatearen kontua dela uste dut.
- Elkarrekin (elkartzeko tarteak) berez parte hartzeari irekitako guneak izan beharko lirateke.
- Elkarrekin kulturaren motorra dira, baina gizarreari inertziaz mugitzen ere utzi behar diote.
- Norbanako bat: kultur kontsumitzaile bat gaituz.
- Norbanako bat: sortzaile bat, sarean, elkar ekintzan.
- Norbanako 2: ideia desberdin 2: sortzaile 2
- Kultura kontsumo 2

- Norbanako anitzen elkarlanean, kultura anitzago eta sortzaileagoa.
- Txikitasuna abantaila ere izan daiteke. Eta kulturgintzan rola nahastuz, jarduera horien inguruko sare sozial aktibo eta asebetea eratu daiteke.
- Kulturgintzan aritzen diren subjektu guztiek osatzen dute berez sarea -komunikazio eta transmisio bideak... tatu behar dira, ordea. Bakoitzaren ROLA gaindituz, aniztasunean irabaziz.
- Baliabideak ere sortu, elkartrukatu.
- Kultura: komunikazioa talde ezberdinen artean.
- Kulturgintzak herriari eman ahal diona kontutan hartzea. Barrura begiratu, ez soilik kanpora.
- Euskarazko kulturgintzan herrigintzaren logikan ...tuta batuta behar dira lan instituzionala eta komertziala.
- Bigarren plano batean kultura helburu eta bitarteko dela ahaztu gabe.
- Euskarazko kulturgintzaren aldeko enpresa eta politikarien kopurua handitu beharko da alde batetik, eta bestetik hauek botere eta diru bahiaren gainetik jarri beharko dute euskal kulturgintza.
- Euskararen garrantzia lan instituzionalean eta komertzialean handitzeko; beharrezkoa da eragile horiek eurentzat euskarak izan dezakeen onura/aukera erakustea eta baita eurek gai honetan duten erresposabilitatea ikustea.
- Herrigintzaren bitartez tradizioak berrasmatu daitezke.
- Jakintza "itxiak/ermetikoak" ezagutzera eman, sozializatu (bai horixe!).
- Tradizioak ez dira mantendu behar, biziberritu egin behar dira. Bestalde, botere harremanak esaten dute zer den modernoa edo tradizionala; eta jaso/popularra, unibertsala/lokala ea.
- Tradizioen biziberritze horrek, dena den, izaera errebelde bat barneratu behar du.
- Tamalez euskal kulturaren gehiengoan, kultur ondarea, esku pribatuetan utzi da lizentzia restriktiboan bitartez (copyrightak, patenteak, erregistroak...), kultura beraren garapenari mugak jarritz.
- Hitzalditik azpimarratuko nukeena:
- Programaziotik sormenera eta parte-hartzera (Durangoko Plateruenaren hausnarketa).
- Parte- hartzea eta elkarlana: sloganak baino gehiago izan behar dute.
- Kosmetika apurtu behar da.
- Parte hartzea eta elkarlana, aldika jendeak eta taldeak neutralizatzeko erabili daitezke. Erabakiguneak eta erabaki hartze prozesuak/guneak zehaztu behar dira.
- Praktikatik gogoetara eta ez hainbeste alderantziz (aldi e..antzietan beti hobe!).
- Ados, praktika badugu. Orain optymizatzerara behar dugu, elkartuz, trukatzuz, metatuz...
- Eta geure zilborrari gutxiago begiratuta, euskal kulturaren beharrezkoei jarri behar diegu arreta eta noski, euskal herritarrek gura dutenei. Ezen, badakigu, euskaldunek zer kultura jaso edo sortu gura dogun?



Gotzon Barandiaranek eta **Igor Elortzaren** berbek auzolana eta herrigintzaren ikuspegi kulturalaren hausnarketarako atea ireki zuten. Haien hitzetan **hiru dira kultur sistema bat osatzeko aukerak: herri-antolakuntza (auzolanekoa), instituzioak (normatiboa) eta merkatua (komertziala)**. Gaur eguneko kulturgintza auzolanean ardazteko hiru aukerak landu behar dira **herri-antolakuntza motorra izanik eta lan instituzionala eta komertziala batuz**.

Lan hau aurrera eramateko parekidetasuna ezinbestekoa da, hots, parte hartzen duten eragileen arteko parekotasuna beharrezkoa da kulturgintza herrigintzaren logikan lantzeko. Horretarako horizontaltasuna bermatu behar dugu. **Herri mugimenduak, instituzioak eta merkatuaren erabakiguneak berdintasunean joratu behar dira**, txiki-handi logikak gaindituz (kapitala eta estatua versus herria) auzolanaren bitartez, sorkuntza horizontalizatuz kulturgintzan parte hartzen duten eragileen artean. Modu honetan, eragileen rola zabalduko genuke: sortzaile, antolatzaile, kulturgile, babesle, laguntzaile...sarea osatuz.

Artista-ekoizle versus hartzaile-kontsumitzaile rolak gainditu behar dira kultur eragileak **elkarlanean** aritzeko. Kulturgintza kontsumo logikatik aldentzeko sorkuntza eta horizontaltasuna bultzatu behar da kontsumitzaileak baino

hartzaileak kontutan hartzeko. **Sorkuntza parte hartzailea** behar dugu, sorkuntza elkar lanean burutzea jendea kulturaren parte sentiarazteko, hartzaile eta sortzaile hain zuzen eta ez kontsumitzaile. Modu honetan **funtzio soziala eta ez komertziala zainduko da eta gainera parte hartzen dutenen baldintzak hobetuko lirateke.** "Profesionalizazio" rako bidea itxi barik, sortzaile, ekoizle, hartzaile...arteko harremanak berrasmatu beharko genituzke.

Sorkuntza parte hartzailea bermatzeko elkarrekin, erabakiguneetan, parte izan behar dute pertsonak. Batetik elkarrekin (elkartzeko tarteak) berez **parte hartzeari irekitako guneak** izan beharko lirateke. Eta bestetik jendeak elkarrekin **parte hartzeko beharra** sentitu behar du eta **parte organiko sentitu** behar dira. Elkarrekin kulturaren motorra dira, baina gizarteari inertziak mugitzen ere utzi behar diote bestelako kulturagintza sortzeko. Elkarrekin edo erakunde bakoitzak bere espazioa eta gunea izatea garrantzitsua litzateke. Bagara, bagaude. Bakoitzak egiten duenean sinestea eta bakoitzak berea defendatzea. Auzokoari begira denbora eman beharrean, norbereenean lan egitea baina sarean.

Herrigintzaren logikak kulturagintzan gauzatzeko eragileen arteko **sarea sortu behar da, sarea sozializatu eta indartu.** Herri, tokiko kultur adierazpen ezberdinen bilgunea osatu behar da (elkar ezagutzeko, elkarlan posibleak antzemateko...). Eragile kulturalak elkarlanean aritzen badira irekiagoak izango dira, jende gehiago egongo da inplikaturaren lanean, arlo ezberdinak kontutan izango dira eta iraunkorragoak izan daitezke.

Sarea sortzerakoan helburu komunak adostu beharko lirateke bakoitzaren sormen askatasuna errespetatuz. **Kultur sormenak kritikoa eta eraldatzailea beharko luke izan;** bai sortze prozeduretan, eta baita sortutako produktuetan. Kultur sormena era askotakoa, **forma ugari eta anitzak,** izan daitezke edo izan behar du herriaren (pertsonek) aniztasunari erantzuteko. Forma eta arlo ezberdinen arteko jerarkizaziorik ez ezartzea, **kultur adierazpen ezberdinei balore berbera** ematea abiapuntua izan daitezke. Kultura sortu, gozatu daitezke txikitasunean ere. Ez daukagu botere beharrik, goserik...gurean eusteko eta bizirik jarraitzeko. Kultura arima elikatzen du, ez sabela.

Kulturagintzak herrigintzaren logikak jarraitu nahi baditu kultur sorkuntza ekimen kolektiboa izan behar du, anitza, parekidea, parte-hartzailea, eta horizontala. Horretarako eragileen arteko sarea sortu behar da, sozializatu eta indartu. Modu

honetan **kulturgintza herrikoia sortuko dugu identitateari lotuta** .Eta lortzeko euskal kulturaren beharrezkoak jarri behar diegu arreta eta noski, euskal herritarrek gura dutenei. Ezen, badakigu, euskaldunek zer kultura jaso edo sortu gura dugun?

Hauxe izan zen, beraz, bi egunetan zehar denok elkarrekin sortu genuen lorea:





ZER IKASI DUT?

Apur bat hobeto entzuten. Auzolanaren garrantzia! Jardunaldi parte hartzailea izan da! Nire herrian utopiatzat jotzen dudana besteetan errealitatea dela. Ezagutzen ez nituen eta abian daduden mugimenduak ezagutu ditut. EH bizirik dagoela ikusi eta sentitu dut. Aukera handiak ditugula, parez pare... EMAN BIDE! Uste baino gehiago gara eta indarrak batuz beste eredu mota batzuk posible direla. Herritik sortuak eta herriarentzat. Euskal Herrian Txanpinoi goxo-eder pila daudela! Herrigintzari dagokionez, egiteari garrantzi gehiegi ematen diogula eta oso gutxi erreparatzen diogula NOLA egiten dugunari. Iberoz "gu" nola idazten zuten. Gu hitzak benetan zer esan nahi duen: ni naizena besteekin batera. Gogoa eta ilusioa dagoela! Gora gu eta gutarrak! Auzolana irtenbidea dela gizarte indibidualista honetan parte (=ondo) sentitzeko. Ez dudala presiopean aritu nahi. Hurrengorako hobetu.

Esperientzia ezberdinen berri izan dut eta herrietako egitasmoek zabalpen (oihartzun) gehiago izan beharko lukete. Bizipoza gehiago landu behar dugula gure jardueran. Ilusioa irabazi dut!

ZER HOBETUKO ZENUKE?

Eguraldia. Egun gehiago ikastaroa luzatzeko eta gaietan sakontzeko. Denbora gutxi! Denbora gutxiegi. Egun gehiago behar zituen gai zerrenda interesgarri honek! Gaiak gehiago sakontzea merezi du, denbora gehiago eskaintzea. Hori ikastaroa bertan edo beste marko batean egin behar da? Metodologia oso parte hartzailea da, baina, bi egunetako ikastaro bat izanda, hizlari asko dira eta beraiekin berba egiteko denbora gehiago eskertuko nuke. Talde txikitik lan egitea komeni da, baina, agian, tarte gehiago eskaini diogu? Hamaiketako kafea eta pastetaz at? Jende kopurua, denbora, edukien arteko oreka. Hitzaldi batzuen kasuan denbora gehiago behar dutela uste dut. Kontzeptu asko eta denbora gutxi. Denbora luzatuko nuke espazioan. Asteburu oso bat. Talde txikitako lanak oso ongi, baina, eztabaida ireki gehiago hizlarien ondotik. Denbora faktorearen eraginak mugatzen gaitu, hau pena. Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoako jendea eta esperientziak. Bakoitza bere aurrean eta aurreiritziekin etorri da. Aurrez parte hartzaileen arteko esperientzia trukea, saio presentzial honi zuku gehiago ateratzeko. Berdin, ondoren, gogoeta honi bide ematen jarraitzeko. Zergatik ez foro hauxe gogoeta estrategiko baterako GUNE IRAUNKOR bezala erabili? Frediren bertsoak! Egitarautik kanpoko aktibitateen (kontzertuen) berri izatea jendeak harremanak sendotzeko eta elkartrukeko gune oso egokiak baitira. Talde handia bitan banatzen denean pena erdiak beste erdia ez entzutea (niri adibidez ekonomia interesatzen zitzaidan eta ezin izan dut egin) Ados. Entzundako gutzia nola bildu? Animo txostenarekin!

NOLA SENTITU NAIZ?

Taldean eta auzolanean.

Hasieran urduri, ez zait talde handian hitz egitea gustatzen. Gerora lasaia eta gustorago. Hasieran urduritxo. Urduri, estresatute, ondoren lasai eta orain poz-pezik. (Gure) etxean bezala. Parte sentitu naiz. Familian. Neure saltsan. Hasieran lotsatua... gero nire saltsan! Arront gustora. Eroso. Edarto. Oso ondo eta pozik. Ondo, komodo, gustora, egoera batzuk aspaldi sentitu/bizi ez ditudalako, beharbada. Bete!!! Mila arlo, mila ardatz... borroka bakarra! Oso gustora. Ongi, gustora. Ondo, gustora. Ondo, gustora. Eroso, gustora. Txikitasunean protagonista. Eroso, baina, esnatze jolasek batzuetan tentsioa eragin didate.

Kredituak eta baimenak.

Egilea: [Zesar Martinez](#), [Andere Ormazabal](#), [Izaro Gorostidi](#) eta [Aiara Riveras](#).

Data: 2011ko uztaila

Baimena: Creative Commons [Aitortu-PartekatuBerdin 3.0](#)

Oharra: material hau interesa daukan edonoren esku jartzen da Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 3.0 lizentziarekin. Lizentzia honekin edukia kopianu, banatu eta erakutsi ahal izango dituzu, ondorengo baldintzak beteaz:

- Edukiaren jatorrizko egilea aipatu behar duzu.
- Lanaren kopia zein banaketa askea da.
- Lan eratorriak, jatorrizko egiletza aitortzeaz gainera, baimen (lizentzia) berdina izan beharko du.